



# **ALDE ZAHARREN BIRSORKUNTZA** **LA RECREACIÓN DE LOS CASCOS HISTÓRICOS**

ONDAREA, PAISAIA ETA GLOBALIZAZIOAREN IV. SINPOSIOA

---

**Urriaren 5etik 20ra**  
**Iruñea- Tuter**

**:nabarralde**  
kulturakimena kulturaren inbentarioa / iniciativas de promoción cultural / initiatives / promotions culturelles

**ITURRALDE**

Azterlan eta Ekimenetarako Elkarte  
Sociedad de Estudios e Iniciativas

## SARRERA

Globalizazioak gure hirietan duen eragina, alde zaharretan nabarmentzen da batez ere. Alde zaharretan gordetzen dira gure ondarea, gure identitatea eta herriaren memoria, eta bertan egiten dute talka turismoaren presioarekin, sakontasunik gabeko urbanismoarekin, eraikuntza historikoen berrerabilketarekin... Gaiaren inguruan hausnartu eta gure egunerokora eramateko helburuarekin, hitzaldi, mahai-inguru, emanaldi, argazki erakusketa eta Iruñeko Alde Zaharrera bi bisita gidaturekin osatuko den programa bat antolatu dugu, Alde Zaharren Birsorkuntza izenburupean. 2015etik ospatzen ari garen ondarea, paisaia eta globalizazioaren inguruko sinposioaren laugarren edizioa izango da.

Azken hiru urteotan, Ondarea bezalako gizarte-elementuak aztertu ditugu (orokorrean eta zehazki ondare industrialak, egun krisi eta eztabaidan dagoena), baita Paisaia eta Memoria bezalako kontzeptuak, besteak beste. Iazko edizioan Globalizazioaren galbahetik pasa genituen kontzeptu guzti hauek, izan ere, gure bizimodua aurreikusi ezin litekeen moduan aldatzen ari den joera da. Edizio berri honetan, guzti hau alde pragmatikoago batetik tratatu nahi dugu, kontzeptu guzti hauek ikusgarri egiten diren eremu horretara eramanez: bizilagunen eztabaidak, historialarien memoria galtzea, bisitari olatuak eta turismoaren zartada, etxebizitzaren salneurrien igoera, eremu arkeologiko baliotsuen suntsiketa, paisaien eraldaketa....

Izan ere, ekonomia, gizarte, urbanismo eta bizikidetzaren indar desberdinen borroka eremu bilakatu dira gure hirietako alde zaharrak. Alde batetik, batzuentzat negozioa beti izango da negozio. Beste alde batetik, auzo hauetan ondare balio handia dago jokoan: identitatea, eraikin historikoak, memoria lekuak, tradizioak, bestak... Galdera zehatza batzuk ere sortzen dira guzti honen inguruan: dena mantendu daiteke? Egindako suntsiketei dagokienez, berreskuratu daiteke galdutako ondarea? Paisaia aldatzen bada, ez da zuzenean bertan bizi diren biztanleen bizimodua aldatzen? Non hasi eta akabatzen da hiri-paisaia?

Paisaia, Joan Noguék dioen bezala, "naturaren eraldaketa kolektiboaren emaitza, gizarte batek espazio zehatz batean duen proiektzio kulturala" bada, non gelditzen da orduan komunitate baten berezko paisaiaren balioa, alde zahar hauetan mendez mende erroto dena, turismoarentzat saiakera moduko batean bilakatzen dugunean?

## HELBURUAK

- Ondarea, paisaia, kultura eta bestelako kontzeptuen eztabaidak eremu praktiko batera eramatea, proposamenak, arriskuak, gai larrienak, joerak, eztabaidak eta lehentasunezko gaiak baloratuz.
  - Alde zaharrak deitzen diren eremu horietako aldaketa, joera, arazo eta eztabaiden diagnosi zehatza egitea, ondarearen ikuspegitik eta balio monumentala, identitarioa, arkitektonikoa, historikoa eta bizikidetzaren balioa aztertuz; eta maiz kontutan hartzen ez diren eskakizun eta baliabideak baloratuz.
  - Akzio eta politika zehatzak sustatzea, globalizazioaren testuinguruan ematen ari diren aldaketa sozial eta ekonomikoek eragiten dituzten joera ezkorrak aurreikusi eta murrizteko helburuarekin: gentrifikazioa, kulturaren homogeneizazioa, identitatearen eta ondarearen galera...
  - Ondare kulturalaren inguruko eztabaida eta ezinegona gizarteratzea, programa osatzen duten aktibitate desberdinen bitartez, bai sinposioaren bitartez, bai emanaldia, bisita gidatuak eta erakusteren bitartez ere.
-

## EGITARAUA

URRIAK 5

Rua Zentro Zibikoa, Tuterera, 20:00

---

### **El casco histórico de Tudela a debate**

#### ***Mahai-ingurua***

Angel Rekalde, Luis M<sup>a</sup> Martínez Garate, Juanjo Bienes.

URRIAREN 6tik 13ra

Civican (Iruñea)

---

### **Hiri bizia // Ciudad viva**

#### ***Argazki erakusketa***

Komisarioa: Aitziber Imizkoz.

URRIAK 6

Civican (Iruñea), 19:00

---

### **Bye Bye Barcelona**

#### ***Dokumental emanaldia***

“Bye Bye Barcelona”, hiriak turismoarekin daukan harremana aztertzen duen dokumental bat da, zehazki Bartzelonan zentratzen dena. Bartzelona eta bartzelonarrak, turismoa eta turistak buruz buru jartzen ditu. Bertan bizi diren biztanle batzuen ahotik, hiri kondalean turismo masiboak eragiten dituen ondorio latzak ageria uzten dira. Dokumentalaren helburua, “turismoarekin denok irabazten dugu” ideiarri kontrapuntua jartzea da, batez ere. Galtzen dugun hori erakustea.

ZUZENDARIA: Eduardo Chibás.

URRIAK 16

Iruñea

---

## **Jauregien Iruñea**

*Bisita gidatua Iruñeko alde zaharrear*

Dinamic Zerbitzu Kulturalak

Izen-ematea (doakoa): [www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus)

URRIAK 18

Iruñea

---

## **Pamplona palacial**

*Bisita gidatua Iruñeko alde zaharrear*

Dinamic Zerbitzu Kulturalak

Izen-ematea (doakoa): [www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus)

URRIAK 19

Civican (Iruñea), 19:00

---

## **Ciudades postizas. Sobre la expulsión de la historia de los centros históricos**

*Inaugurazioa eta irekiera hitzaldia*

MANUEL DELGADO RUIZ, antropologo soziala

URRIAK 20

Civican (Iruñea)

---

## **Alde zaharren birsorkuntza // La recreación de los cascos históricos**

*Jardunaldi nagusia*

09:00-09:30 AKREDITAZIOEN BANAKETA

09:30-10:00 **Cascos históricos, del concepto a la realidad.** Ainara Martínez (AVPIOP).

10:00-10:30 **Sociedades vivas y recreación del patrimonio. Algunos ejemplos de referencia.** Humberto Astibia (UPV-EHU).

10:30-11.00 **Las ciudades y los museos de ciudad en Europa.** Joan Roca i Albert (Ciutat de Barcelona historia museoko zuzendaria).

11:00-11:30 ATSEDENA

11:30-12:00 **Iruñea, patrimonio monumental** Mikel Sorauren (historialaria, Nabarralde).

12:00-12:30 **Donostia: la especulación permanente, carcoma del patrimonio urbano.** Alberto Fz. d'Arlas

12:30-13:00 **Iruñea, expolio y destrucción de patrimonio. ¿Alternativas?** Joxe Abaurrea (Iruñeko Udaleko Urbanismo zinegotzia)

13:00-14:00. KOMUNIKAZIOAK

13:00-13:10 **El twitter de la Edad Media: las campanas** Jokin Elarre (Eskilazainak elkarte)

14:00-16:00 BAZKARIA. Iruñaberri jatetxean.

16:00-16:30 **La recreación del paisaje de las ciudades.** Iñaki Uriarte (arkitektoa)

16:30-17:00 **Juventud, madurez y senectud en el Casco Viejo. Repensando identidades.** Carlos Vilches (NUP).

17:00-19:00. MAHAI-INGURUA: **Iruñeko alde zaharra. Eszenatoki mutanteak.** Moderatzailea: Carlos Vilches Plaza. Hizlariak: Joxe Abaurrea, Aitziber Imizkoz, Hedoi Etxarte eta Carlos Otxoa.

19:00-19:15 ONDORIOAK ETA ITXIERA. Amaia Apraiz (sinposioaren zuzendaria).

---

## IZEN-EMATEA

Izen-ematea, SOILIK 20KO JARDUNALDIRAKO BEHARREZKOA DA, eta Nabarralderen webgunearen bitartez egin daiteke ([www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus)).

Bi izen-emate mota daude:

1. Izen-emate orokorra: 10,00 euro.
2. Izen-ematea + bazkaria: 25,00 euros.

Informazioa:

[www.nabarralde.eus](http://www.nabarralde.eus) - Bidangoz 3-behea, 31014 Iruñea - 948 21 10 57 - [nabarralde@gmail.com](mailto:nabarralde@gmail.com)

## ORGANIGRAMA

### Antolakuntza komitea

Angel Rekalde, Miren Mindegia, Marian Pérez, José Miguel Martínez Urmeneta, Beñi Agirre, Ainara Martínez, José Mari Blanzako, Victor Manuel Egia.

### Komite zientifikoa

Amaia Apraiz, Humberto Astibia, Luis María Martínez Garate, Mikel Sorauren, Aitziber Imizkoz, Carlos Vilches.

### Ohorezko komitea

Ana Herrera (Consejera de Cultura, Deporte y Juventud del Gobierno de Navarra), Joseba Asiron (Alcalde de Pamplona), Javier Fernández (director de Fundación Caja Navarra), Tasio Agerre (miembro de Sociedad Iturralde, presidente de Fundación Nabarralde).

### Laguntzaileak:

